

B

BARREN




Harrapatzen bazaitu...

Sanfermin txiki eguna



TEXTIL HOGAR · KOLTXOI DENDA LAGUNAK



JOERA BERRIAK !!

LAGUNAK

San Roke kalea, 20 - Tel: 943 74 44 57 - ELGOIBAR

24 hilabetetan ordaindu dezakezu interesik gabe

www.textillagunak.com

Bizia sortzen

Beste organu askoren donazioetan bezala, obulu emaileak obulua sortzeko gabezia duen emakumeari obulua eskaintzen dio. Kasu honetan, ordea, bada berezitasunik: bizitzen jarraitzeko aukera baino, bizia sortzeko bertutea eskaintzen zaio obulu hartzaileari. Finean, naturak emakumearengan utzi duen mirari, gaitasun eta ardura nagusia burutzea.

Gure artean guztiz barneratua dugu giza herentziaren egiteko hau, pertsona bezala osotasuna ematen duen puntutzat hartua, emakume nahiz gizonezko gehienengan. Garaiotan aldiz, gero eta ugariagoa da haurduntzeko ezintasuna, antzutasuna. Eta hor iristen da bikotearentzako kolpe gogorra.

Egungo aurrerakuntza zientifiko teknologikoei, diru inbertsio potoloekin batera, proba eta teknika aukera zabala eskaintzen dute, bizia sortzeko nahi natural hori gauzatzeko bidean.

Baina gure gizarteak gordintasun injustuak pareka eskaintzen ere badauki, eta guraso izan nahi eta haurrik ezin izan dituztenez gain, gurasoen maitasuna nahi eta gurasorik ez duten haurrak izendatzen ditu.

Iruditzen zait bizitza duina izateko gurasoen maitasuna behar duenari arreta hau eskeintzen diona "bizitza emaile" izango dela honelakoetan.

Bizitzaz ari gara bata eta bestean. Eta inolako zalantzarik gabe, honek bizitzako erabakiak hartzera bideratzen gaitu, korapilo eta zalantza guztien artean. Baina bizitza berriei mintzo garelako kontuan hartuta, ez dezagula behintzat bi-degurutze honetan norbere bizitza frustrazioan gal!



Oihana Apellaniz

"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitzez gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

“Guraso izan nahi eta haurrik ezin izan dituztenez gain, gurasoen maitasuna nahi eta gurasorik ez duten haurrak izendatzen ditu gizarteak”

elgoibarren.
iragarkilaburrak.com
 zure-iragarkia elgoibartik eskal herrira

iragarki**laburrak**.com
hastatzen iragarki serbizioa

www.elgoiBARREN.net

ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA



Julen madina

Julen Madina hernaniarra da, nahiz eta jende askok iruindarra dela uste izan. Nafarroako hiruburuan dabil egunotan sanferminetan, zezenaren aurrean. Gutxi ezagutzen dituzte entzioerretako sekretuak berak beste. Azken 38 urteotan ez du hutsik egin, eta aurten ere telebistako kameren aurrean zezenen arriskutik gertu ibiliko da. Serio hartzen ditu entzierroak, eta bere burua prestatuta igarri artean jarraituko du antxintxika. 53 urte ditu, eta sasoi fisiko onean dago.

Andoni Iturbe

“Sanferminetan atzerritarra naiz, eta ez didate kasurik egiten”



Hainbeste urtetan sanferminetan antxintxika irten eta gero, etxebizitzarik baduzu lruñean?

Ez. Orain arte alokatu egin izan dut, eta aurten lagun baten etxean nago. Normalean alokairuan hartzen dugu lau korrikalariren artean.

Aurten jende gutxiago bildu da sanferminetan, krisia dela eta ez dela.

Bai, ulertzekoa da. Dolarra eta euroa nola dauden ikustea besterik ez dago. Sanferminak oso garestiak dira: parranda, ostatua... Eta horrelako egoeretan poltsikoak igartzen du. Pezeta zegoenean, amerikarrak sanferminetara gusturago etortzen ziren. Sekulako pagotxa zen haientzat. Baina orain justu kontrakoa, *amigo*.

Zuretzat ere sanferminak garestiak dira?

Ni ere etxekoa naiz, baina niretzat ere garestiak dira. Egunero lruñean bizitzea, jatea

eta afaltzea garesti da. Edonorentzako dira garestiak.

“www.julenmadina-sanfermin.com” da zure webgunearen helbidea. Beste korrikalariren batek ere badu wegunerik?

Ez, nik uste dut nire webgunea bakarra dela. Badaude beste webgune batzuk sanferminen inguruan, baina nirea pertsonalago da.

Zure webgunearen arabera, eskolak emateko prest zaude entzierroak prestatu nahi dituztenentzako...

Hori aitzakia bat zen webgunea egiteko eta eskaintza osatzeko, baina azkenean ez dut ikastarorik eman.

Norbaiti klaseak eman izan dizkiozu?

Ez.

Ez da animatu, orduan, japoniar edo amerikar dirudun bakar bat ere?

Ez. Ez du arrakastarik izan, baina ez nau kezkatzen.



Entzierroetan irtekez gain, sanferminak bi- zi dituzu?

Bai, baina beste modu batera. Nire istorioa bestelakoa da. Nik korritu, gero gosaldu... egiten dut. Arratsalde partean etxera joaten naiz. Eta ez naiz gauean irteten.

Aurten zein egoera fisiko duzu?

Ondo nago eta ondo entrenatu dut. Zartako txiki bat izan nuen orain dela hamabost egun serie bat egiterakoan. Fisioterapeutarekin tratatzen egon naiz. Buruz ondo nago. Hala ere, urtean zehar ez naiz gertzen. Gainera, urte guztia entrenatzen egoten naiz.

2004ko zezenaren adarkada ahaztuta daukazu?

Bai, aspaldi pasatu zen, ondo nago.

Dena den, serio hartu behar dira entzierroak.

Bai, jakina, oso serio, zezen baten aurrean jartzea ez da txantxa. Fisikoki eta psikologikoki prestatu behar da. Ez da jolasa, eta ez luke parrandaren jarraipena edo ondorioa izan behar. Zoritxarrez, oraindik ere asko sartzen dira parrandaren ostean. Alkoholarekin eraginez, ezetz baietz... eta azkenean animatu egiten dira.

Zuriz janztearen aldekoa zara kaleak jendez gainezka dauden kasuetan...

Bai. Hori da nire aldarrikapena: jendeari eskatu beharko liokete zuriz joateko, edo gutxienez peñaren jantziarekin. Askok eta askok joaten dira kolorez jantzita. Baina benetan entzierro batean atera nahi baduzu, zer kostatzen zaizu zuriz eta gorritz jantzia? Horrela jende asko kontrolatuko lukete.

Kasurik egiten dizue?

Ez, batere ez. Nik esandakoari askoz kasu gutxiago egiten diote.

Zergatik?

Iruñekoak izango banintz kasu egingo lidakete, baina ni atzerritarra eta kanpokoa naiz. Argi eta garbi diot, nahiz eta 38 urte eman entzierroan korrika egiten.

Peñekin harreman ona duzu?

Ez daukat arazorik. Hori bai, betikoa: gazte askok, ni ezagutu eta ikusi gabe, gaizki esaka ibiltzen dira. Julen Madinari buruz hitz egiten ohituta daude batzuk, eta mamu hori elikatu egin behar da. Ezagutzen nautenean, batzuetan aldatzen dute iritzia.

Zergatik uste duzu gaizki esaka ibiltzen direla?

Ondorioak zuk atera. Urte asko dira, eta ez naiz Iruñekoak, eta onerako edo txarre-rako nire izena mundu osora iristen da.

Gaizki esaka ibiltzen diren askok protagonismo bila zabilzala esaten dute...

Protagonismoa? Entzierroetan ehunka jazerari dabilzala lanean, eta anonimo izatea ia ezinezkoa da, eta are eta gutxiago 38 urtean korrika bazabiltza.

Baina beste askoren izenak ez ditugu ezagutzen. Beste asko ere irtengo dira korrika urtetik urtera...

Bai, baina entzierroan urtetik urtera benetan korrika egiteko asmoarekin irteten diren korrikalari gutxi daude. 70 urterekin korrika irtetetzen den jendea ezagutzen dut eta entzierroan ateratzen direla esaten dute. Baina kalean sartu eta izkinara baztertzen dira. Hori ez da korritzea; korrika egitea zezenaren aurrean borrokatzea da eta metroak egiten saiatzea.

Zu, berriz, korrika egitean zertan fijatzen zara?

Nire espazioan, eman beharreko hurrengo pausoa, zezenen lekuan... Ez naiz bitxikerietan fijatzen. Bitxikeriak besteei uzten dizkiet. Nik korrika egiten dut. Hori dela eta, entzierroa bukatu edo hasi baino lehen fijatzen naiz bitxikerietan.

53 urte dituzu. Gorputzak esan arte jarraituko duzu korrika?

Nire buruak aguantatu arte. Burua presioa aguantatzeko gai den bitartean aterako naiz.

Curriculum

- **Ikasketak:** Enpresa zientzietan diplomatua. Jarraian, Hezkuntza Fisikoan lizentziatu zen Madrilan.

- **Judoa:** Judoko eta jiu-jitsuko Espainiako entrenatzailea da eta 5. Dan.

- **Irakasle:** Unibertsitatean irakaslea da eta Atletico San Sebastian kluban prestatzaile fisikoa.

- **Entzierroak:** Sanferminetako entzierroaz gain, Tafallako eta Madrilgo San Sebastian de los Reyesekoetan irteten da.

- **Arriskuak:** Arrisku-kirolak gogoko ditu: raftinga, eskia, parapentea, hidrospeeda...



Julen Madina Iruñeko entzierroetan, 90. urteetan eta orain dela urte batzuetakoan.

“Nire burua presioa aguantatzeko gai den birtartean aterako naiz sanferminetako entzierroan”

Zelan eragiten du etxebizitza

Etxea erosi eta saldu nahian dabiltzanei eragin die etxebizitza sektorearen krisiak zuzen-zuzenean. Etxeak ez dira lehengo beste saltzen. Batetik, Estatu Batuetan iaz sortutako krisi inmobiliarioak Europa zipristindu du, eta interesek gora egin dute; bestetik, inflazioa oso handia izaten ari da.



ZU +

JERONIMO ANGULO

Etxea saldu ezinik dabil

“Elgoibarren etxe berri gehiegi eraiki dituztela uste dut”

Etxea saldu ezinda zabilzala esan digute.

Ondo kokatutako etxea da. Gainera, oso ondo prestatuta dago: orain dela gutxi berriztatu genuen. Tasazio prezioa baino hamabost milioi pezeta gutxiagora jaitsi dugu prezioa. Hala ere, saldu ezinda gabiltza. Arraroa da, ezta?

Noiztik duzue salgai?

Bi urte.

Bai, arraroa...

Oso ondo dago. Horixe esaten dute ikustera datozenek. Baina hor dago, batzuek finantzatzeko arazoa dutelako eta beste batzuek beste arazoren batzuk izango dituztelako.

Krisiaren eraginez ote zabilzate horrela?

Baietz uste dut. Etxe hori orain dela hiru urte segituan salduko zen, eskatzen diharduguna baino 15-20 milioi gehiago ordainduta. Hala ere, hor dago, geldi.

Jende gehiago ezagutzen duzue zuen egoera berean, ala?

Askok eta askok. Geure artean ezertxo ere ez dela saltzen esaten dugu.

Bigarren eskuko etxeak saltzea gero eta zailagoa dela esaten dute. Zergatik gertatzen ote da hori?

Elgoibarren eskaintza gehiegizkoa izan da. Mordoa eraiki dute. Jende askok pisu berria erosi du, ordura arteko etxea saltzeko asmoarekin. Berri guztiak ia batera etorri dira, eta momentu horretan salgai gelditu dira erabilitako etxe horiek. Orain ez dago nahikoa erosle horiek guztiak erosteko. Nik uste dut gehiegi eraiki dela Elgoibarren.

Oraindik gehiago eraikitzeke asmoz dabilte.

Orduan arazoa larriagotu besterik ez da egingo!

Agentzia bakarrera ala gehiagotara jo behar izan duzue?

Inmobiliaria batzuekin dihardugu. Bisita batzuk izan dira baina batek ere ez du aurrera egin.

Inmobiliarietakoek zer esaten dizute?

Ez dutela ulertzen. Pisua benetan ondo dagoela: material berriekin berriztuta, plazan bertan eta prezio onean; baina ez dela saltzen.

Zelan zaude?

Etsita. Orain ez badugu saltzen, geroago salduko dugu, baina ezin du gu oparitu. Sasoi berrien zain gaude. Azkenean saldu beharko da.

Besterik esan nahi duzu?

Bikote nagusi batentzako izan liteke gure etxea, erdigunera etorri nahi duenarentzat. Han dena dago eskura.

FINI

IÑAKI GONI

Elgoibarko Euskadiko Kutzako zuzendaria



“Operazioak beti aztertu dira, baina orain pixka bat gehiago kontrolatzen ditugu”

Zertan eragiten digu Euriborraren igoerak?

Hilero ordaindu beharreko kopuruak handitzen dira, eta arazoak sortzen ari dira. Orokorra da. Interesak igotzean, gehiago ordaindu behar diogu bankuari eta norberarentzat gutxiago gelditzen da.

Egoerak luze joko du bere horretan?

Estatuko inflazioa Europako altuenetakoa da. Nik uste dut interesek pixka bat jarraituko dutela igotzen. 2009rako berriro jaisten hasiko direla uste dut. Inflazioa ordurako kontrolatuagoa egon beharko da.

Ordaindu ezin dutenekin muturreko neurriak sarri hartzen dituzue?

Banku batek hipoteka bat subastara atera aurretik, bezeroarekin negoziatzen ditu aukera guztiak. Kuota bat edo bi edo hiru jarraian ez ordaintzeagatik, ez dira enbargoak exekutatzen. Azken batean, diru hori berreskuratu nahi dugu, baina zailtasunak ikusten baditugu beste aukera batzuk ere badaude: birfinantzatu, epeak luzatu... Exekutaztea azkena da: muturreko kasua da, beste irtenbiderik ez denean ikusten. Egoera zailtzen ari da, eta interesak igotzen jarraitzen badute, egoera larriagoa izango da. Egia da familien zorrak handitzen joan direla, oro har. Euskal Herrian edo gure eskualde honetan, egia esan, zorionez enpresak ondo dabilta. Hemen oinarritzkoa da lana egotea.

Orduan 90.aren bueltako krisi harekin ezin dugu konparatu oraingoa?

Ez. Orain momentuan Elgoibarko enpresak ez daude krisian, eta garai hartan bai. Orain beste krisi bat da: familien zorreatatik, interesak igotzen diren neurrian, disonibilitatea txikiagoa da.

Maileguak emateko baldintzei gehiago begiratzen diozue orain?

Bai. Zailtasunak handiagoak dira familietan kopuru horiek ordaintzeko, interesak igotzen diren neurrian; orain hiru urtetik bikoiztu egin dira. Operazioak beti aztertu dira, baina pixka bat gehiago kontrolatzen ditugu. Bideragarritasuna duten operazioak ematen ditugu.

Hipotekarekin arazoa duten guztiak ez dira berdinak izango...

Etxebizitza berriak erosi dituztenak, salgai daukatelako lehengoa, zailtasunak dauzkate saltzeko, merkatua ere zain dagoelako. Orain sartutakoek, gutxi gorabehera, badakite zer duten. Orain hiru-lau urte hipoteka merkeekin sartu zirenek nabarrituko dute problema gehien.

Zer aholku emango zenuke?

Merkatuaren gaur egungo egoera gaiztoa da. Erosi behar duenari ondo aztertzeko ordaindu beharreko, mailegu, komisio eta letra txiki guztiak. Bideragarritasuna eurak ikusi behar dute: zentzu handiz jokatu dezatela.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

San Fermin txiki eguna

Norbaitek esango dit nola azal diezaiokekan nire semeei, batez ere lau urtekoari, galerazia daukatela San Fermin Txikiko entzierroan parte hartzea? Nola azaldu, ponietan ibiltzeko ilaran lehenengoetarikoa izanik, ume mordo bat aurretik pasatzen direla behin eta berriro?

Kuota ordaindu beharra diogu Atxutxamaikari herritarron diruarekin prestatzen edo prestatu beharko litzuketen ekinzetan parte hartzeko? Lotsagarria!

Nola liteke gezurretako zezenetan Atxutxamaikako kideak bakarrik ibili ahal izatea eta benetazko zezenetan edozein? Beraz, nire semeak benetazko zezenarekin bakarrik ibil daitezke eta brometazkoak barreraren beste aldetik ikusi behar dituzte? Hainbat gauza ikusteko jaiok gara!

Jada nahiko gauza ditugu debekatuta bizitza honetan, eta gauza asko egiteko kuotak eta zergak ordaintzen ditugu.

Atxutxamaikako "pedagogoe" gure umeen eskubideak ere kolokan jarri behar dituzte?

Hurrengoan mesedez argi utzi nori zuzenduak dauden honelako ekintzak. Eta udaletxean dagokionari honelako jarrerak kontuan hartzea eskatuko nioke.

Olatz Fuente ☺

San Fermin txiki eguneko haserreak

Atxutxamaikak urtero antolatzen duen San Fermin Txiki Egunean izan diren haserre eta keaxak direla-eta, zera azaldu eta argitu nahi dugu:

1) San Fermin Txiki Eguna Atxutxamaikaren udaleku irekietako programa-

zioan dagoen jarduera bat da. Ez da ekintza solte bat.

2) Atxutxamaikaren udalekuetan parte hartzeko aukera ume guztiek daukate, baina izena eman behar da aurrez. Aurten, adibidez, 160 ume animatu dira.

3) Udaleku irekietako programazioa, udalekuetan izena eman duten umeentzat prestatu eta zuzenduta dago. Ume horiek diru bat ordaindu dute programazioa jasotzeko, eta beraien-tzat prestatzen ditugu udalekuak.

4) Hala ere, San Fermin Txiki Egunean salbuespen bat egiten da, eta udalekuetan izena eman ez duten umei ere parte hartzeko aukera ematen zaie. Hori bai, udalekuetan izena eman dutenek daukate lehentasuna.

5) San Fermin Txiki Eguneko entzierroan udalekuetan izena eman ez duten umeek ere parte har dezakete; eta hala egiten dute, gainera, urtero. Aurtengo entzierroan, adibidez, ume eta guraso batzuk ikusi ditugu zezenen aurretik korrika (elgoiBARREN.net atarian ipini dugun bideoan ikusi ditugu).

6) Zezentxoetara, berriz, Udalekuetan izena eman ez duten herriko gaztetxoak irteten dira, eta Atxutxiko umeek horiei begira gozatzen dute.

7) Ponietara igotzeko orduan, ume guztiei eskaintzen diegu aukera. Udalekuetan izena eman dutenak igotzen dira aurretik, eta izena eman ez dutenak, ondoren.

8) Txorizo bokadiloak ere soberan eramaten ditugu, izena eman dutenek

eta eman ez duten umeek ere jan ditzaten (eta guraso batzuek ere bai, tartean).

San Fermin Txiki Eguna umeek jaiaz disfrutatzeko jarduera bat da. Helburu horrekin antolatzen dugu, behintzat. Hala ere, badirudi ez dugula betebeteen asmatzen. Mahai baten inguruan eseri eta aurtengo haserreak azkenak izan daitezten berba egin beharko dugu denok. Hori da Atxutxamaikaren desioa. Bien bitartean, Gora San Fermin!

Atxutxamaika
Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak ☺


Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Faxa: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:





Eva Garcia

Badira ja-
danik hilabete
batzuk Hego Ameri-
katik bidaiatzen ari naize-
la. Ehunka esperientzia bizi ditut

hilabete horietan eta oraindik gehiago etorri behar direla es-
pero dut. Baina badago zerbaiz izugarritzko lotsa ematen dida-
na. Hona hemen gure planetako hainbeste lekuetan gertatzen den
paradoxa bat: lurraren aberastasunak gizakien pobretasuna sortarazi
du.

Mineraletan hain aberatsa den eta nekazaritzarako hain baldintza
onak dituen lurralde honetan, kolonizatzaile europarrek hasieran eta
estrategia ipar amerikarrek gerotsuago, betidanik haginka egin diote lur
honi otso gosetiek bezala. Zoritxarrez, mendeak pasa dira, eta Hego
Amerikak oraindik esklabu baten moduan jarraitzen du funtzionatzen,
besteen beharren menpean, lehengaiak eskaintzen. Arazoa da herrial-
de aberatsek gehiago irabazten dutela kontsumitzen, Hego Amerikak
lehengai horiek produzitzen irabazten duena baino. Baina merkataritza
askearen garaian bizi gara, ezta?

“Badirudi herrialde batzuek beti galtzen dutela”

Europako eta Ipar Amerikako ekonomiak lur honetako altxorrak
behar dituzte. Horregatik altxor horiek abentura eta istorio asko sortu
dituzte, bai, baina estatu kolpeak eta iraultzak ere. Zentzugabeko sis-
tema honek desoreka eta tentsio handiak sortzen ditu: pobretasuna
zabaltzen da aberastasuna kontzentratzen den bitartean, eta hori de-
na, hazkunde demografikoa etengabe hazten den herrialdeetan.

Behartsuek ez dute behartsu izan nahi. Badirudi herrialde batzuek
beti galtzen dutela, horretan datza gaur egungo nazioarteko zatiketa.
Hego Amerika goiz hasi zen galtzera ohitzen.



Miriam Garcia

Handiak txikia irensten du. Tamalez beti
izan da horrela eta horrela jarraituko du izaten.

Behin lagun batek bere Gizartea eta Tipula-
ren teoria kontatu zidan. Bere esanetan munduaren
funtzionamendua tipularen kaperen bitartez azaldu daiteke.
Kanpoko azalean herria dago; bigarren kaperen, ordea, komunika-
bideak; hirugarren kaperen botere politikoa, eta azkenik, barneal-
deko kaperen, botere ekonomikoa. Sistemak horrela funtzionatzen
du: barruko azala –hau da, ekonomia– da beste azal guztiak
eusten dituen. Horregatik erabaki politiko guztiak botere eko-
nomiko baten nahia ezkututzen dute benetan, eta komunikabi-
deak filtro bat baino ez dira: tipularen barnealdean benetan ger-
tatzen denaren eta kanpoko azalera, hau da, herrira iristen den
informazioaren arteko filtro bat.

“Zuk ezin duzu Mundua (termino absolutu- tan) aldatu, baina bai zeure mundu txikia”

Beraz, herrialde aberats batek herrialde behartsu bat lagun-
duko du onura ekonomiko bat dagoen bitartean bakarrik. Interes
hori desagertzen den momentuan komunikabideek horri buruz
hitz egiteari utziko diote. Eta komunikabideetan agertzen ez de-
na ez da existitzen.

Horregatik askotan hobeto dela ikuspuntua aldatu eta gau-
zak eskala txikiago batetik ikustea pentsatzen dut. Zuk ezin du-
zu Mundua (termino absolututan) aldatu, baina bai zure mundu
txikia aldatu. Denok daukagu aukeratzeko bide bat, eta ez genu-
ke eguneroko erabakietan eragiteko daukagun gaitasun hori al-
ferrik galdu behar.



Elgoibarko Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Gasteizko Legebiltzarrak kontsulta deitu du urriaren 25erako.

Zure ustez lortuko du Ibarretxek herri galdeketa egitea?



Mariano Higuera

53 urte, komertziala


Bai, nahiko zaila du, baina nire ustez lortuko du. Gainera, lortu beharko luke, gizar-tearentzat ona delako. Lortuko balu, bozkatzera joango nintzateke, zalantzarik gabe.



Eusebio Elia

63 urte, pentsionista

Ez, ez diote lagako. Baina nire ustez galdeketa egiteko aukera izan beharko luke. Legeak euren eskuetan daude, eta ez dago ezer egiterik. Dena den, oraindik ez dute ezezkorik esango.



Aurora Rodriguez

50 urte, etxekoandrea

Baikorra izan behar da, ezta? Nik uste dut lortuko duela. Kontrako eta aldeko iritziak daude, baina ez litzateke gaizki egongo herriari noizean behin galde-tzea.



Rafael Rodriguez

43 urte, zerbitzaria

Ez, ez du egingo. Justiziak ez dio lagako. Nik ez dakit zer nahi duen gizonezko honen: autogobernua ala espainiar herriari lotutako independentzia. Ez du zentzurik.

10^{eko}
TXIKIAN



MARIA VICTORIA
JAUREGI

Etxekoandrea

1. Herriko txokorik gustukuena?

Plaza handia, duen giroagatik eta inguruan duen guztiagatik.

2. Alkatea bazina, zer egingo zenuke di-da batean?

Zirkulazioa kontrolatu. Izugarria da. Oporretan umeak kanpoan dabilta eta kaleetan pilotzen da jende guztia. Eta gune berde gehiago egingo nitzuzke.

3. Nolakoak gara elgoibartarrak?

Jatorrak. Onenak. Ni oso elgoibartarra naiz.

4. Egia da jendea oso gutxi mugitzen dela?

Ez, nire ustez ez. Jendea asko mugitzen da, baina zoritxarrez jendeak ez die mugitzen direnei lagutzen. Jendeari protestak egitea gustatzen zaio. Ekitaldi asko egiten dituzte, baina gero jende gutxi parte hartzen du. Behin joan nintzen jazz kontzertu eder batera. Oso ondo antolatuta zegoen, baina zortzi lagun bakarrik joan ginen.

5. Aukera nahikoa dago Elgoibarren kirola egiteko?

Bai, Mintxeta ondo dago, eta gainera Leku Ederren ere kantxak jarri dituzte umeentzako.

6. Telebistan askotan irten da gure herria, ezta?

Drogen sasoiari bai, baina ez da albiste txarregatik bakarrik atera. Elgoibarko industria guneaz edo Muguertzako atletismo probaz ere mintzatu izan dira.

7. Zein da elgoibartarrik famosoena, zure ustez?

Txomin Mujika. Musikari dagokionez aparta da.

8. Ahal izango bazenu, joango zinateke beste herriren batera bizi izatera?

Ez, baina nire senarrak beste lanen bat aurkituko balu, orduan bai. Baina bestela ez. Pena emango lidake Elgoibar lagatzeak.

9. Ondo komunikatuta dago gure herria?

Bai, Elgoibartik Donostiara, Gasteizera eta Bilbora joan daiteke. Maiztasun egokia du.

10. Ipin iezaiozu nota gure herriari, 0tik 10era bitartean... 8,5.



San Roke kaleko espaloia oso zabala da leku batzuetan, eta autoarekin kolpea jotzea oso erraza da: “San Roke auzoan, zebrabide ondoan dagoen espaloia oso zabala da,

eta gainera, errebuelta bertan dago. Errebuelta zaballegi hartuz gero, kontrako norabidetik datorren autoa jotzeko arriskua dago, eta errebuelta itxita hartuz gero, atzeko erruberarekin espaloia jotzen da. Ez dut uste hain espaloi zabala beharrezkoa denik. Udalari eskatu nahi nioke ingurune hori apur bat txukuntzeko, mesez”.



Mintxetako umeen igerilekuan ezin daiteke ura apur bat epeldu?: “Kirol Patronatuak eta Udalak aisialdirako gune zoragarria egin dute

Mintxetan, baina umeen igerilekuko ura oso hotza dago”, esan digu herritar batek. Patronatuko zuzendariarekin egon gara, eta berak azaldu duenez, aire libreko igerilekuetako ura ezin da aklimatatu, eta iturritik irteten den tenperaturan bete behar da igerilekua: “Planteatzen den arazoak zerikusi handiagoa dauka klimatologiarekin instalazioak eman diezazukeen erantzunarekin baino”, esan digu Ramon Mujikak.



Zuen kezak, gaidierak edo txaloak bidaltzeko: barren@igolbarkolzarra.com
943-74 41 12



Jose Antonio Estibariz

1983ko uztailaren 9an hil zen

25. URTEURRENA

*Zure usaina daukaten
amamaren begietan,
argazki ajatuetan,
bi alaben keinuetan,
amaitu gabe dagoen
koadroaren trazoetan,
hiru bilobek aitxitzaz
egindako ametsetan...
bizirik jarraitzen duzu
mende laurdenaren bueltan
amamak muxu txiki bat
bidaltzen dizu gauetan.
Aitxitxa Josantonio
eskerrik asko benetan
koloreak jartzearen
gure bizitzen paletan.*



Udalaren Legealdi Plana populista dela eta proiektuak zehaztu gabe daudela esan du EB-Aralarrek

Legealdi Planean gai garrantzitsu asko falta direla aipatu dute koalizioko kideek

Unai Zulaika eta Izaskun Soraluze Ezker Batua-Aralar koalizioko zinegotzien ustez Udalaren Legealdi Plana “populista” da. Haien esanetan, proiektuak ondo zehaztu gabe daude, eta gainera, gai garrantzitsu asko falta dira. Koalizioak Legealdi Planaren kontra bozkatu du, baina gainontzeko alderdi politikoekin aldeko botoekin onartu egin da.

Falta diren gaiak

Koalizioak Legealdi Planean falta diren gaien txosten bat egin du. Besteak beste, eguenetako azoka eta herritarren partaidetza aipatzen dira: “Herritarren gehien-goak argi esan zuen ostegunetako azoka herrian nahi zuela, eta Udalak ez du hori kontuan hartu. Herritarren partaidetza bultzatu behar da, eta Udal irekiagoa osatu behar dugu denon artean”. Horrekin batera, Elgoibarrek zaharren egoitza berria behar duela aldarrikatzen du, eta ez eskualdekoa”.

Bestalde, haserre azaldu dira Legealdi Plana egiteko erabili den metodologiare-



kin. Euren ustez, txostena ez da alderdi politiko guztien artean onartu: “Lehenengo bileran hartu genuen parte, baina ondoren zailtasunak izan genituen”. Legealdi honetan oposizioaren egoera zaila dela gaineratu zuen Zulaikak: “Baztertu egiten dute kritikatu edo gauzak beste modu batean egitea planteatzen duena”.

EAJ, EA eta PSE-EE pozik

Alfredo Etxeberria (EAJ), Bittori Zabala (EAJ), Jon Peli Uriguen (EA) eta

Ovidio Campello (PSE-EE) pozik azaldu ziren Legealdi Planaren aurkezpenean, joan den barixakuan. Euren esanetan, Planean herriko alderdi politiko guztien ekarpenak jasotzen dira; baita, Ezker Abertzalearenak ere, legez kanpo egon arren.

Planak hoguei lan arlo jasotzen ditu, bost ardatz nagusitan banatuta, eta datozen hiru urteetan buruko dira proiektuak. Guztira bost milioi euro erabiliko dira; udal aurrekontuen %30.

Datorren urtean egingo diren hiru obrari buruzko informazioa emango du Udalak erakusketa batean



Santa Ana, Olaso eta Madala ingurunean egingo diren obrei buruzko informazioa ekainiko du Udalak uztailaren 16tik 31ra bitartean egingo den erakusketan. Kultur Etxean jarriko da hiru gune horietan egingo dituzten obren informazio guztia; aurrekontuak, erabiliko diren materialak, epeak, planoak... Horrez gain, hamar minutuko bideoa emango dute, gune horiek gaur egun nola dauden azaltzeko eta ondoren nolakoak izango diren ikusteko. Herritarrek etxeetan jasoko dute erakusketa-aren informazioa.

Hiru obra horiek hilabete honetan irtengo dira lehiaketara, eta urte amaierarako lanean hasteko asmoa daukate. Santa Ana eta Madala inguruneke lanak bost hilabeteke epealdian buruko dira, baina Olasoko errotondako obrak amaitzeko urtebete inguru beharko dute.

Erakusketa bisitatzeko orduak: Asteazken: 19:00-21:00. Asteburu eta jai egunetan: 12:00-14:00 eta 19:00-21:00.

Albiste honi buruzko informazio gehiago eta irudiak ikusteko:
www.elgoibarren.net

Lekua **San Lazaro egoitza**



Elgoibarko Udalak 68.965 euro inbertituko ditu San Lazaro egoitzan bi igogailu jartzeko, bata pertsonentzako eta bestea kamillentzako. Lehenengoak, 400 kilogramo zama garraiatzeko ahalmena izango du, eta gehienez, bost pertsona joan ahal izango dira batera. Kamillentzako igogailuak, bestalde, 975 kilogramo edo 15 pertsona eraman ahal izango ditu. Lehiaketa publikoa egin du Udalak obra horien egilea aukeratzeko, eta ondoren, lau hilabeteko epea izango dute lanak amaitzeko.

Zenbakia **286**

Debabarreneko langabezia datuak argitaratu ditu INEMek, eta horren arabera, Elgoibarren 286 langabetu daude; horietatik 181 emakumezkoak. Urte hasieratik hona, behera egin du langabezia, eta une honetan urtarrean baino 160 langabetu gutxiago daude Elgoibarren. Langabezia, oro har, eskualde guztian jaitsi da azken sei hilabeteotan, eta urte hasieran baino 142 langabetu gutxiago daude orain. Iazko ekainetik, ordea, igo egin da langabeen kopurua, eta gaur egun %7,46an dago Debabarreneko langabezia tasa.

Irudia **Umeak oporretan**

Azken egunotako irudia dugu honako hau. Aitita-amama eta biloba eskutik emanda kalean zehar. Umeek oporrak hartu dituzte, baina gurasoak oraindik lanean ari dira. Sasoi honetan buruhauste bat baino gehiago sortzen zaie lan egiten duten gurasoek, eta asko dira egoera honi aurre egin behar izaten diotenak. Aitita-amamak eta bilobak pozik dabilta elkarrekin, baina aitita-amamarik ez du tenentzat ikastetxeen oporrak luzeegiak dira.



Ricardo Garatek hartuko du Ion Zubiaurreren lekua Hirigintza Sailean

Ion Zubiaurreren gaixotasun baja dela-eta, Ricardo Garate izango da aurrerantzean Hirigintza Saileko arduraduna. Egoera hori gehienez hamazortzi hilabetez luzatuko dela onartu zuen osoko bilkurak azken udal batzarrean EAJ, EA eta PPren aldeko botoekin. PSE-EE eta EB-Aralar alderdiek kontra bozkatu zuten, bi zinegotzi liberatu izatetik hiru izatera pasatu delako Elgoibarko Udala.

Juan Mari Mendizabalen ongi-etorria

Ekainaren 20an irten zen espetxetik Juan Mari Mendizabal, 18/98 sumarioan auzipetutako elgoibartarra. Gaur, barixakua, arratsaldean egingo diote ongi-etorria Plaza Handian, arratsaldeko 19:30ean.

Turismoa bultzatzeko argazki lehiaketa

Debegesako Turismo Sailak argazki lehiaketa antolatu du eskualdeko turismoa sustatzeko. Eskualdean eta uztailearen 7tik 23ra bitartean ateratako argazkiak izan behar dira. Informazio gehiago: www.debabarrenaturismo.com helbidean.

Merkatu plazako zozketa

Hilabete honetan Ainara Uranga eta Amagoia Fernandez izan dira Merkatu Plazako zozketan sari-tuak. 60 euroko erosketa txeki baina jaso dute. Zorionak!



Gure berbak

Aditza (24): aditz gehiago

Gatozen gaur ere aditzen edo aditz-esapidien beste saill batekin.

- *Asko hasarratu jatan umia, litxarrerixak erosten laga ez niolako.*
- *Palizia eman zion zion Bengoetxeak Barriolari, pelota txapelketako finalian.*
- *Belarretan ibili gara arratsalde guztixan, eta asko nekatu gara.*
- *Orkatillia okertu dau fubiolian zabilela.*
- *Ixa amaittu dittugu lanak, eta laster gara oporretan.*
- *"Kuento" haundixa egitten ari da futbolista hori, ikutu ere ez debe egiñ eta.*
- *Lagun onekin ibiltzia tokau jata oiñ arte, eta pozik nago.*
- *Harritzen nau Patxi haiñ azkar hasarratzia, daukan patxadiarekin!*

Hona, hórren onduan, beste aukera batzuk, sarritan jatorraguak, adierazgarriaguak, zehatzaguak diranak:

- *Sutan jarri jatan umia, litxarrerixak erosten laga ez niolako.*
- *Pasadia eman zion Bengoetxeak Barriolari, pelota txapelketako finalian.*
- *Belarretan ibili gara arratsalde guztixan, eta putsak etara dittugu.*
- *Orkatillia bihurritu (trukau) dau fubiolian ziharduala.*
- *Amaittu samartu dittugu lanak, eta laster gara oporretan.*
- *Papeladia egitten ari da futbolista hori, ikutu ere ez debe egiñ eta.*
- *Lagun onekin ibiltzia suertau (egokittu) jata oiñ arte, eta pozik nago.*
- *Txokatzen jata Patxi haiñ azkar hasarratzia, daukan patxadiarekin!*

Jesus Mari Makazaga

Erretratu zaharra

1952

Aste honetako erretratu zaharra Juanito Gorostizak laga digu. 1952. urtean aterata dago, Amorebietan. Elgoibarko koadrilek ohitura handia zeukaten garai hartan lagun arteko irteerak egiteko, eta egun horretan Bizkaia aldera joan ziren mutil horiek. Hamaiaketakoa egin ondoren atera zuten argazkia Amorebietako plazan. Ondoren, Gernikako "Casa Vasca" jatetxean bazkaldu, eta umore onean pasatu zuten eguna.

Gogora ditzagun mutil gazte hauek:

Goiko ilaran, ezkerretik eskumara: Cipri (†) (gernikarra), Manolo Aizpiri (†), Manolo Gil, Luis Irureta (†), Fermin Arrese, Roke Gabilondo (†), Rufino San Martin, Manuel Unzueta.

Behean: Juanito Gorostiza, Jose Mari Igartua, Juan Manuel Ibarluzea (†), Jose Maria Regil eta Juanito Canales.



ESKERTZA




2008ko uztailaren 6an hil zen *Florencia Alberdi Omar* andrearen sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Gotzon Garate

**JESUITA, IDAZLEA, OSABA, EUSKALTZALEA...
BAINA OROREN GAINETIK, LAGUNA.**



Biharamuna. Gai hori duen mezu bat bidali dizut posta elektronikoz, eta zelako poza, erantzun didazula-eta. Urrian izan zen azkenekoa. Gogoratzen? Aitor, zu eta hirurok Bilboko Kafe Antzokian bazkaltzekoak ginen. Bere horretan geratu zen kontua, ez atzera ez aurrera. Denbora batean ezingo zinen-eta gurekin bildu...

Tartean zer gertatu den begiratu gabe ekarri nahi zaitut orri haue-tara. Berezko duzun irribarraz, berezko duzun aurpegi koloreaz. Txapela eskuinaldera makurtuta, jaka beltza soinean eta liburu bat besapean. Azkeneko mezu hartatik gaurkora ez da ezer aldatu; zure ibilbideko harriak dira, euskaldun handi baten harriak.



Testuak: **AINHOA LENDINEZ**
(Gotzon Garateren iloba)
Diseinua eta maketazioa:
ZALOA ARNAIZ

Bideko mugarriak



**Alberto
Agirreazaldegui**
Laguna

"Marx eta marxismoaz asko idatzi zuen eta orduan ezagutu nuen Gotzon. Bere gelan hartu ninduen Deustuko jesuiten egoitzan. Jakintsua baina oso gertukoa egin zitzaidan. Geroztik nobelagintzagatik ezaguna bihurtu bada ere, euskararekiko maitasuna aipatuko nuke, batik bat, Gotzonen ezaugarri nagusizat".

**Jesus Mari
Makazaga**



Hizkuntzalaria

"Gotzon berez ez dot izan irakasle, ez naban-eta haren unibertsitatian ikasi. Alde horretatik ez, baiña bestela bai esan leikela irakasle eta maixu izan dotala. Lan oso ona egin dau urte askuan, batzuetan harrigarria ere iruditu izan jatena. Euskeriaren arimara iritsi nahi izan dau, eta oso egoki jaso dau bere lanetan, zalantzarik gabe. Danak eziñ, baiña pare bat aitatzeko, 'Erdarakadak' eta 'Atsotitzak' ezinbesteko materiala da edozeiñ filologorentzat".

Gotzon Garate Gohartzun, hala bataiatu zintuzten Elgoibarren, 1934. urtean. Durangoko Jesulagundiaren ikastetxean batxilergo ikasketak egin eta zuk zeuk askotxotan esan duzunez, orduan hartu zintuen euskal kontzientziak eta euskararen aldeko jarrerak.

"Neure bizitzan izan dudana gauzarik ederrena familia izan da. Ni hamaika senidetan gazteena izan naiz. Sei anaia eta bost arreba, bata baino bestea jatorragoa. Gurasoak txit onak izan nituen. Horixe da mundu honetan izan dudana oparirik onena. Langileak, zintzoak, hitzekoak, garbiak, sinemen handikoak. Gure aitaren ama santa bat zela esaten dute gure senide zaharrenek. Ni ez naiz ezertxo ere oroitzen", horiek zure txikitako oroitzapenak laburtzeko, bidali dizkidazun hitzak.

Zu jaiotze eta bi urte bete baino lehenago hasi zen Gerra Zibila. Anita arreba zaharrenek mantan bildu eta babestokira eramaten omen zintuen, bonba erasoak hasten zirenean. Eta hala joan zen zure gaztaroa. "Gure bizitza goxo-goxo zihoan. Udan igerian egiten genuen Goikorrotako presan. Hortxe ikasten genuen. Gure jolasak pilota eta futbola ziren. Eskolara, Plaza Txikira joaten ginenean.

Nik beti matematikak oso gustukoak izan nituen, matematikak eta hizkuntzak".

Hamabi urterekin, Durangora joan zinen, batxilergo Jesuiten ikastetxean egitera. Handik bi urtera, euskaldun jesuitak banandu egin zintuzten. "Antieuskaldun jesuiten lana izan zen", hala esan izan diguzu. Euskaldunak Francoren kontra borrokatu zirela eta elkarturik arriskua omen ziren erlijiorako. Divide et impera.

"Neure bizitzan izan dudana gauzarik ederrena familia izan da"

Urte berean, Durangon batxilergo ikasketen bigarren urtea bukatua zenuen. Durangon jarraitu beharrean baina, Xabierrera joan behar izan zenuen. Ordura arte Elgoibarko euskaraz bakarrik egiten omen zenuen: "Ikasketa denboran segundo bat ez zitzaion ematen euskarari. Espainolez den-dena eta beti. Euskara hizkuntza madarikatua eta gaitzetsia zen. Francoren garaipenaren ondoko urte beltzak ziren. Otoitz guztiak eta eskola guztiak huts-hutsez espainolez".



Gotzon, Jose Luis eta Roman Garate

LANAK

NARRAZIOA

- ◆ Lehortean (1979)
- ◆ Muskilak (1980, Mensajero)
- ◆ Nafarroako Ezkurran (1981, Gero)
- ◆ Aldarte oneko ipuinak (1982, Gero)

NOBELA

- ◆ Elizondoko eskutitzak (1977)
- ◆ Esku leuna (1977)

- ◆ Goizuetako ezkongaiak (1979, Zugaza)
- ◆ Izurri berria (1981)
- ◆ Alaba (1984, Elkar)
- ◆ Zilarrezko gazteluaren kronika urratua (1992, Gero)

SAIAKERA

- ◆ Marxen marxismoa (1971, Mensajero)
- ◆ Marx eta nazioa (1972, Mensajero)
- ◆ Marxen ondoko errebisionismoa, Rosa



Nobiziatu denboran noiz edo behin Elgoibarera etortzen zinen. Etxekoek arropa-dendan lanean jarduten zuten eta denen aurrean galtzekotan gaztelera galduko zenuela esaten zenien. “Etxean nahiko harriturik gelditzen ziren, horrelakorik ez baitzuten sekula entzun. Francoren denbora gorrietan ginen”.

1953an Loiolan sartu zinen jesuita: “Niretzat zoragarria izan zen, Loiolan euskaraz aritzeko aukera on-ona izan bainuen”. Jesuita sartu eta ofizialki ez omen zen ezertxo ere euskaraz ikasten edo erakusten. Den-dena espainolez edo latinez. Eta euskaldunek zeuon kontura ikasten zenuten euskaraz: “Nobiziatuan bertan oso zalea nintzen. Oroitzen naiz Mantzisorren Santuen Bizitzak eta Jesusen bizitza zein gustura irakurtzen nituen. Horiek izan ziren nire bizitzan irakurri nituen lehen-dabiziko euskal liburuak. Hura nire poza euskaraz irakurtzen! Neure begien aurrean mundu berria zabaltzen zela iruditzen zitzaidan. Nik umetatik hizkuntzak ikasteko grina bizia izan nuen. Euskara nire bihotzeko, nire erraietako hizkuntza zela sumatzen nuen, ordea”.

Eta euskal senari ezkutuan, gaztelaniaren itzalean eutsi behar askotan, ezta osaba? Horren haritik kontatu didazu hau:

“Francisco Ibiriku gure probintziala izan zen. Euskarari gorroto handia zion. Ameriketara euskal nobizio asko bidali zuen. Batzuek Iparraldean etxe bat edo ikastetxe bat ipintzea komeniko litzatekeela esan zioten. Ez zuen inola ere onartu. Hori ‘zazpiak bat’ zirela onartzea izango zen. Orain Iparraldean euskal departamentua onartzen ez duten bezala, Parisen Euskal Herri osoa biltzeko arriskua dagoela ikusten baitute. Ibirikuk dozenaka euskaldun bidali zituen Venezuelara. Horien artean Joxe Kruz Aiestaran eta gure anaia. Bide-



gain, Agirre, Lazkano, Odriozola... Euskal Herria euskaldunik gabe utzi zuen. Aiestaranek berak ere esaten zidan guztiok bagenekiena: euskaldungoa deuseztearren bidali zituela. Provincia Occidentalean nobiziatu Orduñan zegoen. Aldatu egin zuten, ordea, Villagarria de Camposera. Arrazoa Padre Peirok garbi esan zuen: ‘Para desvasquizar a los vascos’. Hori egia dela gauza jakina da eta askori entzun diet, Sheifler eta Goikoe-txea Iñakiri eta besteri”.

1960an, 26 urterekin beraz, Zaragozako El Salvador ikastetxera joan zinen, filosofia eta grekoa irakastera. Gazteekin egotea beti gustatu izan zaizu, eta bertan ere barnetegiko gazteen ardura-dun zinen. Bi urtez lanean aritu ostean, 1962an Innsbruckera joan zinen teologia ikastera. Hiru urtera egin zinen apaiz eta hurrengo urtean, Innsbruck utzi eta Hirugarren Probazioa egitera Cordobara egin zenuen. Urteak arin zihoazen, eta 1967an Suitzako Friburgen marxismo ikasketak hasi eta hurrengo urtean itzuli zinen Deustura, hiru hilabetez irakasle aritzeko. Berriz ere Friburgo-ra joan zinen 1968an, marxismo ikasketak amaitzera. Urtebeteren buruan Marxismo irakaslea zinen Deustuko unibertsitatean.

Anjel Ugarteburu



Iloba

“Gotzonek hitz eta keinu bakoitzean islatzen eta kutsatzen du euskararenganako maitasuna eta grina. Maiteminduek ohi duten bezala. Haren ekarri ez da, baina, azalean gelditzen. Ikasketek eman dien diziplina eta zehaztasun osoa erantzen dio lan bakoitzari, hizkuntza biluztuari luzaroko jantzia eskaini nahi balio bezala. Eta lortu egiten du, zinez”.

Andres Alberdi



Irakaslea

“1971an ezagutu nuen Gotzon Garate idazle-irakaslea (Marxen marxismoa). Geroago Gotzon eleberrigilea (Esku leuna, 1978). Geroago euskal bitxi-bilatzailea, ‘Erdarakadak’, 1988; ‘Atsotitzak’, 1998). Tartean, Gotzon gizona. Bere lanak ditu bere izakeraren ispilu: euskaltasuna, abertzaletasuna, jatorritasuna, xumetasuna, egiaren aldeko emana, ahularen aldeko borroka, jakin-min asegaitza... Ezaugarri horiek beti Gotzon bat eman didate: gizon maitagarria”.

- ◆ Luxemburg (1974, Mensajero)
- ◆ Lenin eta nazioen autodeterminazioa (1980, Mensajero)
- ◆ Leninen marxismoa (1983, Mensajero)
- ◆ Euskal elaberrien kondaira - 2 (1985, Mensajero)
- ◆ Euskal elaberrien kondaira - 3 (1991, Mensajero)
- ◆ Euskal atsotitzak (1995, Gero)

- ◆ Atzerriko eta Euskal Herriko polizia eleberria (2000, Elkar)
- ◆ Euskal eleberrien kondaira (2001, Gero)

HIZTEGIA

- ◆ Erdarakadak (1988, Gero)

KRONIKA

- ◆ New York, New York (1988, Elkar)

- ◆ India harrigarria (2001, Elkar)
- ◆ Zakurra, zeure laguna (2002, Elkar)
- ◆ New Yorkeko kronika beltza eta beste kontu periferiko batzuk (2004, Elkar)

BILDUMA

- ◆ Lauaxeta menderik mende (2005, Mendebalde Kultur Alkartea)

30 urte baino gehiago irakasten, eta bizi osoa jendea hezten eta laguntzen. Euskaldun jaio eta euskaldun bizi. Baina bederatzi urte kanpoan igaro zenituela eta, 1969an “berriz euskararen jabe egiteko” baserrietan ibiltzen hasi zinen. Lehendabiziko baserria Azpeitiko Odriozolatxo izan zen. Ondoren, zazpi probintzietako baserrietan aritu zara, “indigena euskaldunenen” ahozko ondarea jasotzen. Esango nuke dela zure lanik oparoena, ezta? Egunerokoan baserritarrek trebeki egiten duten gure hizkuntzako altxorra zeureganatu eta gureganatzea, gaur arte.

CURRICULUM LABURRA

Bederatzi hizkuntza dakizkizu eta hamaika herrialdetara bidaiatu duzu, mundu zabalean. Filosofian doktoratu zinen Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean, Teologian lizentziatu Innsbruckeko Unibertsitatean, Filologia Erromanikoan lizentziatu Deustuko Unibertsitatean eta Marxismoan espezializatu Friburgoko Unibertsitatean.

HITZ EGIN DEZAGUN MAITASUNAZ, MAITASUNEZ

Horixe baita zuretzat euskara eta euskal mundua, ezta? Maitatzea, alegia. Hala esan izan didazu beti. Euskaldunok eta, bidenabar, euskalgintzan ari garenok beti dugula poz berezi bat, egunerokoari gogoz heltzeko indarra ematen digun zerbait: euskara gurea. “Herriaren alde ari garen sentsazioa, giro alai eta jatorrean”, hala esan didazu azkenekoz hitz egin dugunean.

Begiak itxi eta sarri oroitzen naiz orain urte batzuk Loiolan, bazkalaurre batean, eguzkia lagun, paseoan nola joan ginen jatetxera. Euskaraz hitz egin genuen, inguruko ei gutxi axola zitzaizela ohartu gabe, guretzat, zuretzat eta niretzat, mundu liluragarriena denaz... Eta zilegi bekik Hasier Etxeberria elgoibartar jatorrak zutaz idatzitakoa hona ekartzea: “...ez dut nehor ezagutzen mundua eta munduko jendea hainbeste maite duenik, berezkoa duena hainbeste maiterik, aldi berean...” eta bidenabar, baita beste hau ere: “...ez da mundu honetakoa: estralurtarra da”.

“Zertan ari zara orain?”, galdetu didazu azkenekoz. Eta batean edo bestean ari naitzela, euskalgintza dela entzute hutsak pozten zaituela ohartu naiz. Bide erakusle izan zaitut, neurekoi sentitzeraino... beti izan baitzara telefonoaren edo ordenagailuaren baltaldean, nik zer beharko. Paperak bukatzen ari zaizkit, baina ez euskarazko hitzak. Eskerrak eman nahi dizkizut, zorionak ere bai egin duzunagatik, egiten ari zarenarengatik.... Jesuita, idazlea, osaba, euskaltzalea... baina orenen gainetik, laguna...



Anai-arrebak


EUSKAL FILOLOGIAREN AITA

Deustuko errektoreari behin eta berriz eskatu zenion Euskal Filologia sortzeko, baina ezer egiten ez zutenez, 1977ko maiatzeko artikulua idatzi eta egunkarietara bidali zenuen: “El próximo curso comienza la filología vasca en la Universidad de Deusto”. Zuk zeuk honela azaldu izan dituzu artikulua horren ondorioak: “Hura izan zen zalapartar Errektoreak deitu zidan bere aurrera, eta oso haserre xantajista nintzela esaten hasi zitzaidan. Katalana zen, jatorra oso, baina gure problemak ez zituen ulertzen. Jendea animatuz joateko egin nuela hori, esan nion. Eta halaxe hasi ginen, eta gaur arte”.

2006ko maiatzeko omenaldi beroa egin zizuten Deustun bertan, Euskal Filologia sortu zenuela 30 urte bete zirela eta, eskerak emateko. Fakultate horretan hezi ziren zuri esker Unai Elorriaga, Jon Arretxe eta Joseba Sarrionandia handiak, besteak beste. Baita Andoni Egaña bertsolaria eta Txuma Murugarren abeslaria bera ere. Beste hainbat ere izan gara han ondoren; zu go-goan, eta zuri esker.



Argizaiola saria 2006



Argazkitan



Gotzon eta Jose Luis Garate.



Gotzon Garate erdian, anaia eta lagunekin.



Nizeto eta Gotzon Garate



Gotzon Garate Loiolako basilikan, lehenengoz meza eman ostean.

Tibeten oihartzuna

Kultura bat baino gehiago

Gaur eta bihar Tibeteko kulturaren berri emango dute Donostiako Atisha kultur elkarteko kideek, Haizea emakume taldeak antolatuta. Gaur, barixakua, 19:30etan, *Dentro del Tibet* dokumentala ikusi ahal izango dute Kultur Etxera hurbiltzen direnek. Bihar, Kultur Etxearen aurrean, karpa batean artisautza lanak egongo dira salgai. Gainera, Tibeteko haurrak apadrinatzeko kanpaina egingo dute. Lortutako diruarekin, Himalayan bizi diren neskatxoentzat gonorazko ikastetxe bat eraikitzea da asmoa. Egiten duen eguraldi gogorrenetatik, ezin dute negu partean etxetik irten eta eskolara joan gabe geratzen dira. Horrez gain, Atisha kultur elkarteko kideek Tibeteko errefuxiatuen bizimoduaz azalduko dute eta moje budistek egiten duten isileko lan sakona eta ekarpenak zeintzuk diren gogoratuko diz-

Andoni Iturbe



Txinako Gobernuaren bidegabekeriak aho zabalik laga zuen mundu osoko iritzi publikoa. Ordura arte jakina zen txinatarren giza eskubideen etengabeko urraketa, baina lehenengo aldia zen moje budisten aurkako irudiak zuzenean Mendebaldera heltzen zirena. Erantzuna berehalakoa izan zen suzi olinpiarra Europako hiriburuetatik zabaldu zen bitartean. Diplomaziak ere egin zuen bere lana: Frantziako presidente Sarkozyren lehenengo hitzak Txinako Gobernu buruen aurkakoak izan ziren. Baina Txinako Olinpiar Jokoak babesten dituzten markak sostengua erakutsi zieten, eta ez zuten atzera egin.

Tibeteko iskanbilek ez zuten asko iraun komunikabideetan, eta hilabete eskas falta denean Pekinen Txinak bere irudirik modernoena zabaltzeko, Tibeteko egoerak bere horretan jarraitzen du. "Euren egoeraren berri ematea beharrezkoa da. Txinak Tibet okupatu zuenetik, giza eta kultur genozidioak ez du atzera bueltarik, eta giza eskubideak erabat mespretxatzen ditu", argitu digu Donostiako Atisha Tibetaren aldeko kultur elkarteko kideak.

Aipatutako elkarte horrek gaur eta bihar Himalayako milurteko filosofia bakezale horren berri emango du. "Nik ez nuen itxaropen handirik nazioarteko erantzunean, baina Europako komunikabideen aldetik, konpromiso handiagoa espero nuen", adierazi du.



Thupten Palbar

Elkarteko presidentea



“Hamahiru urterekin moje izan nahi nuen eta monastegira joan”

Thupten Palbar Donostiako Atisha elkarteko presidenteari bere historia kontatzeko eskatu diogu: “Tibeteko errefuxiatuen seme naiz. Tibet eta Indiaren arteko mugan jaio nintzen, Rotange-ko Garaian. Bi arreba nagusiagoak ditut. Eurak Tibetean sortu zirten, eta nire amarekin ihes egin behar izan zuten. Nepalera iritsi ziren, Txinako militarrek nire aita bertan zela sartu zirenean. Jende asko erailtzen ikusi zuen. Nire amak uste zuen ez zuela berriro ere nire aita ikusiko, baina zorionez Nepalera heldu eta bertan ikusi zuten elkar. Gero India iparraldera joan ziren eta han jaio nintzen. Gurasoak errepideak egin zituzten eta kanpamenduetan egiten zuten lo. Eta interno eraman ninduten errefuxiatuen seme-entzako zentro batera. Indiako Gobernua lur sailak jarri zituzten gu bezalako familientzat. Hamahiru urterekin monastegira joan nahi nuen, nahiz eta nire aitek familiarekin gertzea nahi zuen. Baina nik mojea izan nahi nuen. Budisten Filosofia ikasi nuen eta moje izan nintzen 30 urtera arte. Geroago Caceresa joan nintzen eta bertan ezagutu nuen nire semearen ama. Gaur egun Donostian bizi naiz nire familiarekin”.

Gaur, Kultur Etxean, 19:30etik aurrera, *Dentro del Tibet* dokumentala ikusi ahal izango dute XXI. gizaldiko gizateriaren aurka egingo dako “ekintza lotsagarrietako” baten berri izan nahi dutenek.

Balore handiko dokumentala da. Ezkutu kamerarekin grabatu zuten hiru hilabetez. Ume tibetar batek ihes egin eta urte batzuetara britainiar pasaportearekin itzuliko da bertako egoera aztertzerako. Euren bizitza arriskuan jarri zuten.

“Euren kultura eredu bat da baldintza gogorrenetan fanatismoari aurre egiten diotelako”

Ondarea

Donostiako Tibetean aldeko elkartearentzat, gizateariaren ondare izan behar du budisten kulturak, ez bakarrik fanatismoaren aurka egin edo indarkeria alboratzen duelako, hori guztia baldintza gogorrenetan egiten dutelako baizik. “Ekarpen horrek sekulako garrantzia du mundu guztiarentzat. Gaur egun asko hitz egiten dute Lehen Munduan giza eskubideen, berdintasunaren, elkartasunaren, edo bakearen inguruan, baina zer egiten dute desio horiek egia bihurtzeko?”, galdetzen du Karnele Osak. Orain dela hamasei urte, Donostiako Budisten Filosofiako eskola batzuetara joan zen, eta harridura geratu zen. Lehenengo aldiz, edonork bizitzaren zentzuaren inguruan egiten ditugun galderei erantzun azkar eta sakonak topatu zizkion. Thupten Palbar ti-

betarra ezagutu zuenean, bere sinesmenak areagotu besterik ez zuen egin. Gaur egun, bere senarra da elkarteko presidentea; Karnele Osa idazkaria da.

Apadrinatu

Herriz herri dabilta karpak jarri eta Tibeteko errealitatearen berri ematen. Bihar, Kultur Etxearen aurrean jarriko duten karpak Himachal Pradeshen (Himalayan) bizi diren neskatxoentzako laguntza eskatuko dute. Apadrinatzeko kanpainaren bitartez, eskolarentzat bat egiteko deialdia bultzatuko dute. 25 neskek ikasten dute dagoeneko, eta beste ehun izena emateko zain daude. Helburua gero eta neska gehiagok ikastea da, eguraldiak ez baitie lagatzen etxetik irten eta eskolara joaten. Kanpaina horien bitartez, eraikina handituko lukete eta neska bakoitzak dirua jasoko luke ikasten jarraitzeko. “Laguntza gutxirekin, asko egin dezakegu euren alde”, azaldu dute elkarteko kideek.

Apadrinatzeko beste kanpainetan egiten duten bezala, nesken eguneroko bizitzan zer nolako eragina duten jakinaraziko dute elkarteko kideek, eta nahi duenak aukera izango luke eurekin batera Tibet bisitatzeko eta apadrinatu duen neskatxo ezagutzeko. Datorren urtean joango dira berriz ere Himachal Pradeshera (India iparraldean), sasoi batean Tibet zen ingurune gogorrera.

Hainbat kanpaina jarri dituzte martxan Atisha elkartekoek: 4.000 metrotara dagoen Key monastegiarekin ere kolaboratzen dute. Bertan ume budistak bizi dira; Ngari Khangsten monastegian, berriz, 120 umezurtz eta errefuxiatu bizi dira eta 180 izateko lanean dihardute, izan ere gero eta ume gehiago biltzen baitira inguruetan; Sera monastegian beste 300 umetxo bizi dira. Guztiek behar dute laguntza. Bihar zuen txanda izango da.

GUILLERMO IRAEGI

Hiru auto klasiko ditu

Bihar, Lerun jatetxearen aparkalekuan egingo duten Lenenengo Auto Klasikoen Erakusketan, hiru auto aurkeztuko ditu Guillermo Iraegi enpresaburuak goizeko 11:00etatik aurrera: Mercedes 190 (1960koa), Jeep bat (AEBetako armada-erentzako 1942an sortutakoa) eta Rolls Royce bat. Ondoren, partaide guztiek herria zeharkatuko dute.

“Nire Jeepa Rolls Roycea baino garestiagoa da”



Non kaleratu behar genuke elkarizketa hau: Kulturari ala Kirolean? Kulturari, kultur jarduerari bat delako. Autoen munduaren inguruan aldagai mordoak daude: fabrikatzaileak, motorra... Baina auto klasiko baikoitzaren atzean ikerkuntza eta istorio mordoak dago. Noiz eta nola fabrikatu zen jakin beharra dago jarraian behar bezala zaintzeko.

Zure Jeeparen jatorria Bigarren Mundu Gerran dago...

Jeepa auto militarra da, eta lanerako erreminta zen. Nik dudan Jeepa transmisioetarako prestatuta zegoen. Beste batzuk gudarako prestatuta zeuden.

Gaur egungo autoak bezala mugitzen dira?

Bai. Nahiz eta Jeepa 1942. urtekoa izan, mendian ibiltzeko egokia da. Menditik jaistean igartzen da desberdintasuna, zerbait hautsi ezkerre. Auto berri baten ordezkariak 24 edo 48 orduetan lor ditzakezu; hauenak ez, urtebetean akaso.

Zein da zure auto klasikorik faboritoena?

Hiru auto klasiko ditut bakarrik, baina Jeepa da nire gustukoena. Bi aldiz berreraiki dut. Rolls Roycea gutxi erabili dut oraindik. Ejerzitoaren enkante bat egin zuten Torrejonon (Madrilen). Jeepa ez zego-

en sasoi onean. Nik, hala ere, autoak desegiteko toki baten bidez lortu nuen, eta matrikulatu zitekeen. Goizeko seiretan irten eta arratsaldeko zortziretan itzultzen nintzen. Mendian askotan ibili naiz Jeeparekin. Gasolina asko behar du. Oso garestia da gasolina. Beru-nik gabeko gasolina kendu zutenetik, auto klasiko guztiak birmoldatu egin behar izan zituzten.

Gehiago erosiko dituzu?

A rey muerto, rey puesto. Bata kendu eta bestea jarri. Auto bakoi-tza bestearen osagarria da.

Hain garestiak dira, ala?

Ez pentsa. Auto klasiko batzuk oso elitistak dira eta bildumazale gutxi batzuren esku daude. Beste batzuk ez dira hain garestiak. Askok jendeak uste duenaren erdia balio dute.

Zuk hiru auto klasiko dituzu: 1942. urteko Jeepa, Mercedes 190 SL (1960koa) eta Rolls Royce bat. Zein da hiruretan garestiena?

Jeepa Rolls Roycea baino garestiagoa da. Nik dudan Rolls Roycea merkeagoa da, gai hauetan aditua ez den jendeak kontrakoa uste badu ere. Mercedes garestiagoa da. Prezioak gora egin du. Gainera, 70.eko hamarkadako autoak birbaloratu egingo dira.

Umeen sanferminak Elgoibarren

Iruñeko jaietako ekintza ezagunenekin gozatu dute haurrek

Plaza Handiraino heldu da Iruñeko jai-giroa. Atxutxiamaika aisialdi taldeak antolatuta, martitzen goizean ospatu zuten Sanfermin Txiki Eguna. Berrehundik gora umek parte hartu zuten ekitaldian, zuriz jantzita eta zapi gorria lepoaldean. Ez ziren falta izan sanferminetako ekintzarik ezagu-

nenak: beroketak, entzierroa, pregoia, sainduari salbea abestea... eta zezentxo eta poniekin ere gozatu ederra hartu zuten.

Amaieran, gainera, txorizoa janez berreskuratu zituzten horrenbeste emozio eta korrikaldiren ondorioz gal dutako indarrak.



Bertso giroa oporretan

Txixiburduntzia eta bertso afaria izango da bihar, zapatua, Aubixan, 18:30etatik aurrera, 15-18 urteko gaztetxoentzat (10 euro). Eguazteenan, berriz, Mintxetako igerilekuan bertso-tribiala eta kantaldia izango dute gaztetxoek, 17:00etatik aurrera. Eguenean beste bertso afari bat izango dute, Egaña eta Lujanbiorekin (10 euro). Izena emateko Udaleko Euskara Sailera jo edo deitu 943 744 336 zenbakira. Bertsozale elkarteak Udalaren laguntzarekin antolatutako bertso udalekuen inguruko ekintza irekiak dira.

Haritz taldekoak Kataluniara

Kataluniako Mostra de Folklore Penedes jaialdian parte hartuko du uztailaren 18, 19 eta 20an Haritz Dantza Taldeak, Eibarko Kezka taldearekin batera. Elgoibarko Udal Txistulari Bandako kideak eta Felix eta Eider trikitilariak ere han izango dira. Elgoibarko dantzariak aurreko bi urteetan ere parte hartu zuten jaialdi horretan.

Gelatxo taldeak Eguren izena hartu eta uztaileko domekak girotuko ditu



Izena aldatu du Gelatxo orkestrak eta Eguren Taldea izango da aurrerantzean, baina burua lehengo lepotik du musika talde beteranoak. Uztailaren 13tik aurrera domeketan Plaza Handian emango dituzten dantzaldietan horixe erakutsiko diote Elgoibarko herriari.

Jose Perez Cortes (bateria) eta Enrike Eguren (saxofoia) elgoibartarrek eta Angel Perez Sarasketa (soinu handia) eibartarrak

osetzen dute Eguren Taldea. Pedro Sodupe "Gelatxo" taldekidea hil eta gero hartu zuten izena aldatzeko erabakia.

Uztaileko domeketan betiko piezak eskainiko dituzte, klasikoak, Plaza Handian. Dantzaldien egutegia hauxe izango da:

- Uztailek 13: 18:30-21:00
- Uztailek 20: 18:30-21:00
- Uztailek 27: 18:30-21:00
- Uztailek 31: 18:30-21:00

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89



Mandiola Egurrak S.L.

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA


BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83

Datorren barixakuan jarriko dute martxan BTT Zentroa

Hamalau ibilbide izango ditu Mintxetako guneak

Datorren barixakuan inauguratuko dute Mintxetan eraiki duten Debarrena BTT Zentroa (mendi bizikletaz ibilbideak egiteko), Euskal Herriko hirugarrena, eta Gipuzkoako aurrenekoa. Arduradun teknikoen arabera, ibilbide gogorak eta esijenteak dira, eta mendian bizikletan ibiltzea ohituta daudenentzako izango da bereziki aproposa. Hamasei ibilbide beharrea, azkenean hamalau izango ditu, Mallabia inguruko bi ez dira-eta egingo, bertako bizilagunen erabakiz. Zailtasunaren arabera, lau koloretako seinaleak edukiko dituzte: berdeak, urdinak, gorriak eta beltzak. “Karakate inguruko ibilbidea oso polita izango da. Oro har oso erakargarriak dira, baita publiko guztientzako egindakoak ere”, adierazi digu David Aldai teknikoak.



Jolas gune balioaniza eta tenis pista

Bestalde, futboleko, eskubaloian, saskibaloian, tenisean, boleiboleko eta beste hainbat kirol eta jolasetan aritzeko aukera emango du Mintxetako aparkalekuan jarrita-

ko jolas pista balioanitzak. 12x24 metroko neurriak izango ditu. Tenis pista bat ere datorren eguaztenean, hilak 16, estreinatuko dituzte.

Argazki Lehiaketa

Hirugarren urtez, Elgoibar-ko Kirol Argazkien Lehiaketa antolatu dute Gazteria Sailak eta Kirol Patronatuak. Datorren barixakuan bukatuko da argazkiak aurkezteko epea Olaizaga kiroldegian (32. posta-kutxa, 20.870 Elgoibar; 943 74 44 15).

Sari banaketa abuztuaren 23an egingo da 20:30ean pleno aretoan. Erakusketa, berriz, Kultur Etxeko sotoan egingo da abuztuaren 23tik 30era bitartean 19:00etik 21:00era.



Sanloren Eskubaloi Campusean 56 gaztetxok eman dute izena



Guztira, 52 lagunek, 26 neskek eta 26 mutilak eman dute izena datorren astelehenean Eibarren hasiko den Uda-ko Eskubaloi Campusean parte hartzeko. Eskubaloiaren oinarri eta kontzeptuak bereganatzeaz gainera, eskubaloi campusean izena eman duten 52 gaztetxok kanoetan (Zumaian), igerian (Eibarko igerilekuetan) eta hondartzako

eskubaloiarekin (Deban) trebatu eta gozatzeko aukera ere izango dute. Aisialdiko lau profesionalak gainbegiraturako dituzte ekintza guztiok.

Bestalde, Sanlo eskubaloi klubak uztailaren 17an egingo du urteko batzar nagusia, Kultur Etxean 19:00etan. Ordu erdi geroago, bigarren deialdia egingo dute.



I. URTEURRENA

2007ko uztailaren 11ean hil zen, 45 urte zituela, *Beatriz Iriondo Osoro* andrearen oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, uztailak 12, arratsaldeko 19:30ean Durangoko Santa Ana elizan. Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



Gorka Apalantza nagusitu zen San Migeleko Rallysprint proban Subaru Impreza WRC autoarekin

Hamabi segunduko aldea atera zion Aitor Berruetaren Mitsubishi Lancerri

Gorka Apalantza erreziladarrak, Subaru Impreza WRC baten gidaritzapean, irabazi zuen Sanmigeleko VI. Rallysprintea, 22:42,8ko denborarekin. Bigarren Aitor Berrueta (Mitsubishi Lancer IV) geratu zen hamabi segundu eskasetara eta hirugarren, Ramon Apalantza (Mitsubishi WRC), 23:23ko denborarekin. Hamaika automobil taldeak antolatuta zuten lasterketa Euskadiko Rallysprint Txapelketarako zortzigarren proba puntuagarria da, eta 71 auto-gidarik eman zuten izena. Santi Artetxe Euskadiko Rallysprint Txapelketako liderrak ez zuen parte hartu.

Elgoibar eta Etxebarria artean egindako proba horretan, txanda bakoitzak 10,55 kilometro zituen. Eta hiru txanda horietan, motorzale mordoak gerturatu ziren. Hala ere, jende gutxiago bildu zen eguraldi kaxkarra egin baitzuen. Hori ikuskizunaren mesedetarako izan zen, eta gidariek euren maisutasuna frogatu behar izan zuten zoru bustiari aurre egiteko.

Ezbehar bat baino gehiago egon bazen ere, inor ere ez zen larri zauritu. Xa-



bier Lujia (Skoda Octavia WRC) izan zen lehenengo partaidea, eta irten bezain pronto kontrola galdu eta errepidetik atera zen. Xabier Alustizak ere ez zuen zor-

te handirik izan. Bigarren zatian bere autoak buelta eman zion, baina proba bukatzea lortu zuen. Azkenean zortzigarren bukatu zuen.

Haizea emakume taldeak Asturiasera egin du mendi irteera



Haizea emakume taldeak Asturiaseko Picos de Europa egin du azken mendi irteera. Urtero bezala, hamar emakume irten ziren. "Dagoeneko 50 urtetik 66 urtera, gero eta nagusiagoak...", gogoratzen dute. Asmoa, bi egunetan, Enol urtegitik Fuente De-ra egitea izan zen. Nahiz eta eguraldi aldakorra egin, lortu zuten ibilide hori bukatzea, eta Poncebosenetik Posada de Valdeonera eta Cordiñanesetik Fuente De-ra mendigune guztia zeharkatu zuten.

LANA

ESKAERA

• Emakumea, garbiketa lanak (taberretan, etxebizitzetan, tailerretan...) egiteko prest.

☎ 699 813 826

• Neska, nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketa lanak egiteko prest.

☎ 686 265 293

• Lagun arduratsua, abuztuan umeak edo nagusiak zaintzeko prest.

☎ 943 74 33 42

• Mutila, lan egiteko prest.

☎ 648 202 985

• Emakumea, jatekian eta tabernan esperientziaduna, interna moduan lan egiteko prest.

☎ 689 161 241

• Neska, umeak zaintzeko prest.

☎ 647 085 427

• Neska, nagusiak edo umeak zaintzeko edo tabernak garbitzeko prest.

☎ 663 669 263 676 853 028

• Neska sukaldari laguntzaile izateko, nagusiak zaintzeko edo etxeak garbitzeko prest. ☎ 678 939 382

• Gizonezko arduratsua, garbiketa lanak orduka edo publikitate banatzeko prest. ☎ 622 625 812

• Mutila, edozer lan egiteko prest.

☎ 638 494 501

• Emakumezko arduratsua, garbiketa lanak egiteko edo nagusiak orduka zaintzeko prest.

☎ 622 634 860

• Emakumea, lanerako prest: umeak edo nagusiak zaindu, etxeko lanak egin... Eskarmentukoa eta autoa.

☎ 606 642 284

• LH eta DBHko partikularrak emateko prest, euskaraz zein gaztelaniaz. Uztailan goizez. ☎ 688 664 727

• Neska, lanerako prest.

☎ 659 194 189

• Emakumea, interna lan egiteko prest.

☎ 618 175 692

• Neska, arratsalde lan egiteko prest. Garbiketarako, nagusiak zaindu...

☎ 696 246 962

• Neska, gaez lan egiteko prest. Nagusiak zainduz edo sukalde laguntzaile moduan. ☎ 699 576 107

ESKAINZA

• Elikadura enpresa batek aholkulari-komertzialak behar ditu. Tratu pertsonalerako gaitasuna eta pertsona ekimentsua izatea eskatzen da.

☎ 649 61 31 34 (Meritxe)

• Zerbitzaria behar da jardunaldi erdirako. Eskarmentua eskatzen da.

☎ 652 746 246

• Zerbitzaria behar da jatekian lan egiteko.

☎ 943 12 12 62

• Neska behar da gortinak prestatzeko. Esperientzia eskatzen da.

☎ 943 74 44 57

• Bezeroarentzako arreta-zerbitzua ematen duen administraria behar da. Informatikako ezagutzak beharrezkoak dira. Irailetik aurrera, astelehenetik ostiralera, 17:00etatik 19:00etara.

☎ 943 744 221

• Zerbitzaria behar da Txariduna hoteleko. Kontratua jardunaldi osorako. Esperientzia beharrezkoa.

☎ 943 74 87 78

• Neska edo emakumezko euskalduna behar da irailetik aurrera orduka umea zaintzeko.

☎ 669 339 529

• Zerbitzaria behar da astebururako eta jai egunetarako Mendarón.

☎ 943 030 150

• Sukaldaria behar da.

☎ 943 74 31 96

• Eskarmentua duen sukaldaria behar da.

☎ 943 74 45 78

• Pertsona arduratsua behar da umeak uztailetik aurrera zaintzeko.

☎ 605 585 057

• Bitxiak, barruko jantziak eta kosmetika produktuak saltzeko pertsona behar da. Soldata ona. Ez da esperientziarik behar.

☎ 607824892

ETXEBIZITZAK

SALMENTA

• Etxea salgai Erretxindin. Lau logela, sukalde berritua, eguzkitsua. Ganbara eta balkoi handia. Altzariak salgai.

☎ 628 115 677

GARAJEAK

• Urasandin garaje plaza salgai.

☎ 656 718 761

• Garajea salgai Urasandi inguruan. 12m² + 12 m²

☎ 620 856 768

(arratsaldeetan 17:00etatik 21:00etara)

MOTORRA

• Opel Astra Caravana DTI salgai. 100 zaldi eta aire egokitu.

☎ 686 975 245

• Golf-a salgai. 2002. urtekoa. Highline. 115 zaldi. 6. marxa. Estrak. 10.300 euro. 90.000 km².

☎ 653 735 849

BESTELAKOAK

• Donostiako Gros auzoan etxebizitza alokairuan. 2+2 lagunentzako, uztailako bigarren hamabostaldirako.

☎ 943 27 34 72 / 607 521 028

• Emakumezko ileapaindegia alokairuan Eibarren. Guztiz hornitua.

☎ 679 425 467

• Ekainaren 28an, 19:00etan, Pedro Mari Urruzuno kalean erloju bat aurkitu nuen.

☎ 663 338 456

• Egun batzuetarako muletak edo gurbildun aukia behar duzu? Nik alokatuko dizut diru gutxigatik.

☎ 627 104 915

• Errepideko bizikleta salgai. Giant, hiru plater, T.48. 275 euroren truke.

☎ 658 758 458

• Garbigailua salgai. Aspes markakoa. Hilabete bat du. 150 euroren truke.


☎ 671 956 677

• San Frantzisko kalean urre kolorezko erlojua galduta da uztailaren 1ean.

☎ 943 74 31 95

• Gortinak, altzariak, alfonbrak, oherako izarak eta elektrogailuak behar dira.

☎ 676 444 171



BEKAK

BERDINTASUNA

Gipuzkoako Foru Aldundia. Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzen duten jardueretarako gipuzkoako foru aldundiaren diru-laguntzak. Epea: uztailak 18.

GOI MAILAKO IKASKETAK

Eusko Jaurilaritza. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Unibertsitateko ikasketak eta Eusko Jaurilaritzaren Goi Mailako beste ikasketak batzuk egiteko bekak. Epea: urriak 17 (epe orokorra).

LEHIAKETA

IPUINA

Eusko Jaurilaritza. Gazteaukeraren Ipuin Laburren V. Lehiaketa. Saria: Ingeles ikastaroa Dublín, ostalua eta bidaia barne. Epea: uztailak 18.

LANA

BAKE EPAILEA

Zestoako Udala. Zestoako Udalerako bake epaile titular eta ordeko bat izateko eskabideak aurkezteko epea zabalik. Epea: uztailak 18.

ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA

Kultur Etxean. Bigarren solairuan.
e-posta: gib@elgoibar.org
☎943 74 14 61

Astelehen, asteazken eta ostiral goizetan:
11:00etatik 13:00etara
Asteleheneetik ostiral arratsaldetan:
16:00etatik 19:00etara.

OHARRA:

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira BARRENen eta astero barren.iragarkilaburak.com atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

MODULOAK

Lana / Bestelakoak

Astebete : 5 euro

2 aste : 8 euro

3 aste : 10 euro

Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra

Astebete : 10 euro

2 aste : 17 euro

3 aste : 25 euro



• Zorionak, **Ifigo**, atzo 9 urte egin zenituelako. Familiaren eta bereziki Mar-
kel eta Oinatzen partez.



• Zorionak, **Mara**, bihar urtetxo bat egingo duzula-
ko. Muxu handi bat zure
ahizpa Nahiaren partez.



• Zorionak, **Xabi**, zazpi ur-
tetxo egingo dituzulako.
Etxekoen eta bereziki Be-
ñaten partez.



• Zorionak, **Iker**, zure lehe-
nengo urtebetetzean. Mu-
xu handi bat txapeldun,
famiiliaren partez.



• Aupa, **neska handi**, zor-
tzi urte egin dituzulako.
Familiaren eta bereziki
Maialenen partez.



• Zorionak, **Manar**, 8an
zazpi urte egin zenituela-
ko. Familia guztiaren par-
tez.



• Zorionak, **Aritz**, datorren
asteartean bost urte potlo-
e egingo dituzulako. Fa-
miliaren partez.



• Zorionak eta sei muxu
handi etxeko sorginaren-
tzat. Guraso eta aitona-
amonen partez.




• Zorionak, **Mikel**, hamar
urte egin dituzulako. Mu-
xu handi bat familiaren eta
bereziki Nerearen partez.



• Zorionak, **Laiene**, zure
lehen urtebetetzean, etx-
koen eta bereziki Haitzar-
ten partez.



• Zorionak, **Leidy eta Cesar**, zuen urtebetetze egunean.
Zuen gurasoen partez, maitasun osoz.



• Zorionak, **Sugar**, zure
laugarren urtebetetzean,
Ondo pasa guztion eta
bereziki Arhanen partez.



• **Malen eta Aimar**, ongi etorriak. Celia, Marina eta Jara-
ren partez muxuak.



• **Maria, aitbitxa Inazio eta Nora**, zorionak eta muxu handi ba-
na familia osoaren eta oso bereziki Jonen partez.

Lanbroa

**Gosariak
Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak**

Astehenetik ostiralera irekita goizeko 7etatik aurrera.
Larunbat eta jaiegunetan goizeko 8etatik aurrera.

Pedro Muguruza, 5 • Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

Ileapaindegia • Estetika • Solarium-a

Idama

Ekaineko irabazlea:
**MIRIAN
IRURETA**

Uztaileko saria:
**AURPEGI
HIGIENEA
TRATAMENTUAREKIN**

Antonio Arrillaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik)
Tel.: 943 74 40 26

OKINDEGIA

13 domeka **FOTERO**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 11 Ibañez
- 12 Yudego
- 13 Yudego
- 14 Ibañez
- 15 Garitaonandia
- 16 Etxeberria (Errosario)
- 17 Fernandez
- 18 Yudego

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 75 16 38

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 75 61 42

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 75 13 84

**INFORMAZIO
GEHIAGO:**



Egin klik

www.elgoiBAREN.neten



«Jumper»
(Plaza Handian)

11, barixakua: 22:30

«8 citas»
(Plaza Handian)

12, zapatua: 22:30

musika

11 barixakua
18:30 Bertso saioa

Euskal Herriko Bertsozale Elkar-
teak antolatuta, txitxiburduntzia
eta bertso afaria Aubixan.
Bertsolariak: Jokin Uranga,
Amaia Agirre eta Iñaki Viñaspre.

17 eguena
17:00 Bertso tribiala

Euskal Herriko Bertsozale
Elkarteak antolatuta, Mintxetako
igerilekuetan.

18 barixakua
17:00 Bertso tribiala

Euskal Herriko Bertsozale
Elkarteak antolatuta Andoni
Egaña eta Maialen Lujanbiorekin.
Aubixan.

era kusketak

12 zapatua
10:30 Auto klasikoak

Lerun jatetxeak antolatuta,
auto klasikoaren erakusketa
izango da Lerungo
aparkalekuan. Herrian zehar
buelta bat emango dute,
IMH museoa bisitatu eta
arratsaldean sari banaketa
egingo da.

16 eguaztena
19:00 Hirigintza

Herrian egingo dituzten hiru
obrari buruzko erakusketa.
Kultur Etxean.

hitzaldiak

11 barixakua
19:30 Bideo forum-a

Haizeak antolatuta, "Dentro
del Tibet" dokumentala eta
mahaingurua. Kultur Etxean.
Nafarroa Plazan Tibeteko
umeak apadrinatu eta bertako
produktuen erakusketa jarriko
da.

besteak

11 barixakua
19:30 Ongi-etorria

Juan Mari Mendizabal preso
ohiari ongi-etorria egingo
diote Plaza Handian.

LUDETEKAKO EKINTZAK

UZTAILAK 17, EGUENA
Zumaiara irteera

UZTAILAK 18, BARIXAKUA
Ludotekako agur festa
egongo da eta
Ludo etorriko da

GAZTELEKUKO EKINTZAK

**GAZTELEKUKO
AGUR FESTA**

gaztelekuko agur festa

18:00
Leuzoko
Argazki erakusketak
Ere. eta...

**UZTAILAK 18
17:00-20:00
GAZTELEKUAN**

Jumper. Zuzendaria: Doug Liman.
Aktoreak: Hayden Christensen, Sa-
muel L. Jackson, Diane Lane, Ja-
mie Bell. Iraupena: 120 min.

Babes etxe batean bizi den gazte
batak tratatu txarrak jasaten ditu. Ala-

baina, konturatuko da edozein leku-
tan, edozein momentutan leku ba-
tetik bestera aldatzeko dohaina
duela. Dohain horrekin bere amaren
ustezko hiltzailea bilatzen saiatuko
da.



Gure gomendioa

Auto klasikoen erakusketa

Bihar, zapatua, 10:30ean

Autoen mundua gustuko baduzu, Lerungo aparkalekuan daukazu bihar zita. Auto klasikoen erakusketa izango da. 50 auto inguru bilduko dira guztira: Mercedesak, deportiboak, Rolls Royce-ak... 30 urtetik gorako autoak izango dira denak.



Jose Angel Zabala 

MAHASTI



Urdaitegi eta ardandegia

Merkatu plaza, 30, 33, 34 • 615 76 03 72



MECANIZADOS
S.COOP
183 BUKATU.

OLASO Poligono Industrial - Olsape kale, 6
66 area - Telefonoa: 943 74 42 54 - Fax: 943 74 02 98
20870 ELGOIBAR
E-posta: bukatu@bukatu.es - Htt: www.bukatu.es

Zerikasi

IKASTAROAK

Ehiza hegaztien erakusketa

Norentzat: Interesa duten guztientzat
Hizkuntza: Kontsultatu
Hasiera data: uztailaren 20an, eguerdiko 12:00etan
Non: Altzolan
Izen-emate bukaera: uztailak 20

Yoga ikastaroa

Norentzat: Interesa duten guztientzat
Hizkuntza: Gazteleraz
Hasiera data: Irailak 1
Non: Elgoibarren
Izen-emate bukaera: ekainak 30

Gorputz eta Kirol ekintzen animazioa

Norentzat: Sarrera probak gainditzen dituztenentzat
Hizkuntza: Euskaraz edo gazteleraz
Hasiera data: Irailak 1
Non: Eibarren
Izen-emate bukaera: kontsultatu

Zeramika hastapenak

Norentzat: 16 urtetik gorakoentzat
Hizkuntza: Euskaraz
Hasiera data: uztailak 25
Non: Deban
Izen-emate bukaera: uztailak 21

Haur Hezkuntza

Norentzat: Batxilergoa edo Lanbide Heziketa dutenentzat
Hizkuntza: Euskaraz edo gazteleraz
Hasiera data: irailak 1
Non: Elgoibarren
Izen-emate bukaera: kontsultatu

Informazio eta eskaintza zabalagoa:
www.zerikasi.com edo 943 74 82 71



- KABLEENTZAT KATEAK
- IDENTIFIKAZIO SISTEMAK
- KABLEENTZAT PLAKAK
- TUBOAK ETA ERRAKOREAK



URKIDI
AHOLKULARITZA

Antonio Urkidi
Josefina Fernandez

Tel.: 943 74 18 91
Faxa: 943 53 01 49
Kalamua, 12



txatxaran



eneritz iraeta

Eneritz Iraeta plaentxiarrak lortu ditu bigarren notarik onenak Mekanizazio ikasketetan (8,1) eta IMHko sarietako bat irabazi du. 21 urteko gazte honek ikasketak amaitu ditu dagoeneko, eta gaur egun lanean dabil Eibarren. Horrez gain, Darling Shoes musika taldean gitarra jotzen du.

“Lehenengo saritua mutila izan da, eta jendea harritu egin da”

Zerk bultzatu zintuen IMHn ikastera?

Batxilergoa Mekan ikasi nuen eta geroago hasi nintzen Ingeniaritza ikasten Arrasaten. Hura laga eta IMHren erreferentzia onak nituenez, bertan hasi nintzen.

Neska ikasle hobeak daude?

Bai, lehenengo saritua mutila izan da, eta jendea harritu egin da.

Ikasten jarraitzeko asmorik baduzu?

Ez. Lanean nago enpresa batean, praktikak egiten.

Zerbait aurrezteko aukerarik baduzu soldata horrekin?

Ez, praktiketako kontratua delako. Lehenengo urtean soldata ez da beste mundukoa.

Ikasi duzunarekin lotura zuzena du lanak?

Bai, zortea izan dut, eta oso gustura nago.

Zelan musika taldearekin?

Taldekode bat kanpoan dago. Ez daukagu asmorik taldetik bizitzeko. Guretzako afizioa da eta ondo pasatzea da gure asmoa.

Zein musika estilo jotzen duzue?

Dantza egiteko rock-and-rolla. Neskak gara guztiok. Nik gitarra jotzen dut, eta koroak egiten ditut.

Zenbat aldiz entseiatu izan duzue?

Asteburuetan, lanean gaudelako gehienok.

Non jo duzue orain arte?

Inguruko herrietan, eta Erandion ere jo izan dugu. Madalan, orain dela gutxi jo genuen.

Non egiten dituzu parrandak?

Tokatzen den lekuetan. Edonora apuntatzen naiz.

Elgoibarren ere bai?

Lehen bai, gazteagoa nintzenean, baina fase hori bukatu da. Orain anaia etortzen da. Parrandan ere ibili izan gara elkarrekin.

Zer egingo duzu udan?

Lanean jarraitu. Bulegoa itxi egingo dute hiru astetan, eta Castellongo herri batera joango naiz oporretan. Eguzki pixkat bat hartu eta deskonektatu egin nahi dut.











BARREN astekarian

BANATZAILEAK BEHAR DIRA

Interesatuak 943 74 41 12 (Ainhoa) telefonora deitu edo barren@elgoibarkoizarra.com helbidera idatzi



Badatoz San Bartolomeak !!!
Publizitatea jartzeko: 943 74 37 04



Elgoibar

Residencial Géminis

Hobeto bizi!



Etxebizitza
berri eta eksklusiboak
garaje eta trastelekuekin
266.000 eurotik.



2008an emango dira!



Informazioa eta salmenta:
Trenbide Kalea 21, bajo • 20870 Elgoibar

943 74 80 92

www.grupogsi.com



Gsi

(Ongizate eremuak)